

Ezarritako alarma-egoeraren ondorioz, aldi baterako kontratazioko prozedurari dagozkion epeak bertan behera uztea.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera ezartzen duenak (2020ko martxoaren 14ko BOE), honako hau xedatzen du:

Bigarren xedapen gehigarria. **Prozesuetako epeak bertan behera uztea.**

1. Jurisdikzio-ordena guztiei dagokienez, terminoak bertan behera geratu dira eta lege prozesuetan ezarritako epeak bertan behera geratu eta eten egin dira. Errege dekretu hau edo, hala badagokio, haren luzapenak indarrean jartzen diren unean hasiko da berriz epeen zenbaketa.

(...)

Laugarren xedapen gehigarria. **Preskripzio- eta iraungitze-epeak bertan behera uztea.**

Edozein akzio eta eskubideren preskripzio- eta iraungitze-epeak bertan behera geratuko dira alarma-egoeraren eta, hala badagokio, hartzen diren luzapenen indarraldian.

Hirugarren xedapen gehigarria. **Administrazio-epeak bertan behera uztea.**

1. Terminoak bertan behera geratu dira, eta sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epeak eten. Errege dekretu hau edo, hala badagokio, haren luzapenak indarrean jartzen diren unean hasiko da berriz epeen zenbaketa.

2. Terminoak bertan behera uzteko eta epeak eteteko agindua Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako sektore publiko osoari aplikatuko zaio.

3. Hala eta guztiz ere, organo eskudunak ondokoa adostu ahal izango du, ebazpen arrazoitu bidez: prozeduran interesdunaren eskubide eta interesetan kalte larriak saihesteko behar-beharrezkoak diren antolamendu- eta instrukzio-neurriak, betiere interesdunak ados dagoela adierazten badu, edo epea bertan behera ez uztearekin ados dagoela adierazten badu.

4. Xedapen honek ez du eraginik izango lehenengo paragrafoan aipatzen diren prozedura eta ebazpenetan, baldin eta alarma-egoera justifikatzen duten egitateei hertsiki lotutako egoerei buruzkoak badira.

Beraz, aldi baterako kontratazioari dagokionez, bertan behera geratuko dira honako jarduketa hauetarako epeak: Erreklamazioak, errekursoak, administrazioarekiko auzi-errekursoak, etab. aurkeztea epea gaituta duten deialdi guztietan.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 16an.